

HEGAZTI-GRIPEARI

AURRE EGITEKO NEURRIAK

EHIZTARIENTZAT

Hegazti basatiak dira HEGAZTI-GRIPEAREN gordailu nagusia. Hegazti-gripea hegaztien artean arin hedatzen den birusa da, eta sintoma arinetatik hasi (letargia, desorientazioa, arnas aparatuko sintomak) eta heriotza arte eragin dezake, egun gutxitan; hain zuzen ere, hori gertatzen da etxeako eskortako hegaztiak kutsatzen direnean.

Birusa pertsoneri transmititu dakieke, eta handien-gandik **beste etxeako hegazti edo maskota batzuei** ere bai, hegaztiakiko kontaktu estua eta jarraitua dagoenean. Transmisio-bidea zuzena izan daiteke, aire kutsatua inhalatzearen bidez, edo zeharkakoa, hegaztien sekrezioekin kutsatutako eskuez begiak, sudurra eta ahoa ukitzen ditugunean.

PREBENTZIO-NEURRIAK

- Ez manipulatzeari, inola ere, gaixorik edo hilik dauden hegazti basatiak.
- Hegaztien manipulazioa minimizatzea eta norbera babesteko ekipamenduak (NBE) erabiltzea hori egite-rakoan: maskara, eskularruak, babes-betaurrekoak.
- Hegazti biziak edo hilak manipulatu ondoren, eskuak xaboi desinfektatzaileekin ondo garbitzea. Ehiza-jardunaldiaren ondoren, arropa eta oinetakoak ondo garbitu eta desinfektatzea.
- Ehizatutako hegaztien edozein hondakin modu seguruan deuseztatzea, poltsa itxietan.
- Zure etxeako hegaztiak eta maskotak babestea zure arroparen, oinetakoen, ibilgailuen eta abarren bidez gerta litezkeen kutsaduren aurrean.
- Esposizioaren ondoko 7 egunetan sintoma hauei adi egotea: arnas aparatuko sintomak, sukarra, behe-rakoa, goragaleak, gorakoa, begietako narritadura, negar-jarioa, giharretako mina... Halakorik agertzeko-tan, jar zaitez harremanetan lehen mailako arreta-zer-bitzuekin.
- Osasun-agintaritzek gomendatzen dute hegaztiakiko kontaktu estua duten pertsonen sasoiko gripearen urteko txertoa har dezatela.

ZER EGIN HILDAKO EDO HILZORIAN DAUDEN BASA-HEGAZTIAK HAUTEMANEZ GERO?

HEGAZTI HORIEK EZ UKITU EZTA MANIPULATU ERE, ETA BEREHALA **112**rekin JARRI HARREMANETAN, egoeraren berri emateko, leku zehatza esanez, hegaztiak erretiratu ahal izateko.